

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

331

EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 16koa, Finantza Politikako zuzendariarena, zeinaren bidez betetzen baita Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Aginduaren 8.5 artikuluan xedatzen dena. Agindu horretan, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen da, erakundeok erabili beharreko hilkortasun- eta biziraupen-taulei dagokienez.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen arloan egun indarrean den araudiak zehazten du zer betekizun bete behar dituzten BGAE-ek erabili beharreko biziraupen- eta hilkortasun-taulek. Taula horiek tratamendu estatistiko-aktuarialetara doitutako esperientzian oinarritu behar dira; islatzen diren hilkortasun- eta biziraupen-tasak esperientzian oro har onartutako konfiantza-bitartean barnean egon behar dira, eta, Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 8.4 artikularekin bat, behar bezala eguneratuta.

Apartatu horretan jasotakoaren arabera, kolektiboaren beraren esperientzian oinarritutako taulak ere erabili ahalko dira, baldin eta haren eboluzioari egokituak direla egiaztatzen bada. Ogasun eta Ekonomia sailburuaren 2019ko abenduaren 26ko Aginduak, aseguru-jarduerarik egiten ez duten araubide bereziko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakunde bereizi gabeen araudia garatzen baitu, 8.5 artikuluan xedatzen du hau: aseguru-jarduerarik ez duten BGAE bereizi gabeen hornidura teknikoek kalkulatuak egiteko erabiliko diren taula biometrikoek ofizialak behar dute izan, eta behar bezala eguneraturik egon behar dute gainera. Era berean, kolektiboaren esperientzian oinarritutako taulak ere erabili daitezke, kolektiboaren eboluzioarekin bat datozela egiaztatuta badago. Taula horiek argitaratu egin beharko dira, eta Eusko Jaurlaritzan erakundeen arloko eskumena duen zuzendaritzak onargarri direla adierazi beharko du, dagokion administrazio-ebazpenaren bidez.

EAEko Aktuarioren Elkargoak hilkortasun- eta biziraupen-taula batzuk osatu ditu, «Heriotza-arloko BGAE-en hilkortasun-taulak, 2018» izenekoak, EAEko heriotza-arloko BGAE-en biztanlerian oinarrituta.

Taula horiek beharrezkoak dira bi arrazoiengatik: batetik, ez dago antzeko taularik EAEn, ezta Espainiako estatuan ere, eta bestetik, hilkortasun-taulak EAEko heriotza-arloko BGAE-en arriskuari egokitu behar zaizkio. Horrenbestez, erabili ohi diren PASEM 2010 hilkortasun-tasak ordeztu behar dira nahitaez, hornidura teknikoak nabarmen gainbaloratzea dakarte eta.

Taula horiek egiteko, Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu geografiko jakin batzuetako heriotza-arloko hamabost BGAERen informazioa bildu da (lagin oso adierazgarria). Lagin horrek 2016., 2017. eta 2018. urteetako informazioa erakusten du, hain zuzen. Hildakoen kopuruari buruzko informazioa egutegi-urte horietakoa da, eta heriotza-adin aktuarialaren arabera zenbatu da. Arriskupean dagoen biztanleriaren gaineko informazioa aipatu egutegi-urte horietako bakoitzaren urtarrilaren lehenekoa da.

Sortu den datu-basean 219.883 pertsonaren datuak bildu dira: generoka, 113.387 emakumezko eta 106.496 gizonezko. Hildakoen kopurua: 1.230 emakume eta 1.465 gizon dira. Hildako gehien banaketak adin-tarte hau hartzen du gehienbat: gutxi gorabehera 40tik eta 95era bitartean.

2020ko urtarrilaren 24a, ostirala

Heriotza gertakaria, jokabide ohikoa denez, banaketa binomial motakoa dela ezarri da. Hala, betebeharrak estatistiko-aktuarialak direla eta, hildako pertsonen zenbatekoak gutxienez bost izan behar du. Egiaztatu denaren arabera, 40 bat urte baino gutxiagorekin hil direnak, bi generoetan, ez dira kopuru hori adina, eta, horrenbestez, adin-tarte bakoitzean lortzen den maiztasun erlatiboak ez du bermerik ematen hilkortasun-zenbatesle edo -estimatzaileraren doitzeko prozesuan.

Informazioa osatzeko, adin gutxiagoko kasuan, taula estandar bat erabili da. Ohiko jokabidea da datu aski ez dagoen kolektiboekin lan egitean. Esaterako, pentsio-planetan, aseguratutako talde txikietan, etab. Simulazio askoren ondoren, Human Morbidity Database-n argitaratutako Espainiako hilkortasun-etaulerak aukeratu dira (2016koak).

Datu-basea osatuta, doikuntza-eredu matematikoa aukeratu behar zen. Horretarako, kontuan hartu dira heriotza kopuruaren maiztasun erlatiboa, urte hasieran heriotza-arriskupean dauden pertsonen aldean, laginek adin-tarte guztietarako, eta lantaldeko kideek taula horien osatutako esperientzia. Hala, Heligman-ek eta Pollard-ek garatu eredu matematikoa aukeratu zen.

Beraz, Eusko Jaurlaritzako Finantza Politikako Zuzendaritzak hau ebatzen du:

1.– Argitaratu ematea, ebatzen honen eranskinean jasota, «Heriotza-erloko BGAE-en hilkortasun-etaulerak, 2018», behar bezala eguneratuta daudelako, EAeko heriotza-erloko BGAE bereizi gabeen bazkideen kolektiboaren beraren esperientzian oinarrituta daudelako eta haren bilakaerari doitzen zaizkiola egiaztatu delako.

2.– Onargarritzat hartzea, aseguru-jarduerarik ez duten heriotza-erloko BGAE bereizi gabeen heriotza-estaldurari loturiko magnitude aktuarialak kalkulatzeko, aipatu eranskinean jasotako «Heriotza-erloko BGAE-en hilkortasun-etaulerak, 2018». Izan ere, erabiltzeko modukoak dira, behar bezala eguneratuta daudelako, EAeko heriotza-erloko BGAE bereizi gabeen bazkideen kolektiboaren beraren esperientzian oinarrituta daudelako eta haren bilakaerari doitzen zaizkiola egiaztatu delako.

3.– Ebatzen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 16a.

Finantza Politikako zuzendaria,
FRANCISCO JAVIER ARNAEZ ARRECIGOR.

2020ko urtarrilaren 24a, ostirala

ERANSKINA

HERIOTZA-ARLOKO BGAE-EN HILKORTASUN-TAULAK, 2018

Hauek dira urteko hilkortasunaren ehuneko teorikoak, aipatutako ereduan oinarritutakoak, pertsona baten bizialdi osorako, generoka eta norbanakoaren adinaren arabera.

Emakumezkoetan:

EMAKUMEZKOEN HILKORTASUNAREN TAULA					
ADINA	qx	ADINA	qx	ADINA	qx
0	0,0018098	36	0,0003267	72	0,0136989
1	0,0002195	37	0,0003603	73	0,0151948
2	0,0001298	38	0,0003979	74	0,0168513
3	0,0000951	39	0,0004401	75	0,0186850
4	0,0000768	40	0,0004872	76	0,0207140
5	0,0000658	41	0,0005398	77	0,0229583
6	0,0000587	42	0,0005983	78	0,0254395
7	0,0000540	43	0,0006635	79	0,0281812
8	0,0000509	44	0,0007360	80	0,0312089
9	0,0000492	45	0,0008166	81	0,0345503
10	0,0000488	46	0,0009062	82	0,0382355
11	0,0000504	47	0,0010058	83	0,0422965
12	0,0000544	48	0,0011164	84	0,0467679
13	0,0000615	49	0,0012394	85	0,0516865
14	0,0000718	50	0,0013759	86	0,0570915
15	0,0000847	51	0,0015276	87	0,0630242
16	0,0000990	52	0,0016961	88	0,0695279
17	0,0001133	53	0,0018833	89	0,0766479
18	0,0001263	54	0,0020911	90	0,0844309
19	0,0001372	55	0,0023219	91	0,0929247
20	0,0001455	56	0,0025782	92	0,1021777
21	0,0001514	57	0,0028627	93	0,1122381
22	0,0001553	58	0,0031787	94	0,1231531
23	0,0001580	59	0,0035295	95	0,1349683
24	0,0001601	60	0,0039189	96	0,1477261
25	0,0001625	61	0,0043511	97	0,1614647
26	0,0001659	62	0,0048308	98	0,1762168
27	0,0001707	63	0,0053633	99	0,1920082
28	0,0001774	64	0,0059541	100	0,2088560
29	0,0001863	65	0,0066097	101	0,2267671
30	0,0001976	66	0,0073369	102	0,2457373
31	0,0002116	67	0,0081436	103	0,2657489
32	0,0002283	68	0,0090382	104	0,2867707
33	0,0002481	69	0,0100301	105	0,3087561
34	0,0002709	70	0,0111298		
35	0,0002970	71	0,0123485		

2020ko urtarrilaren 24a, ostirala

Gizonezkoetan:

GIZONEZKOEN HILKORTASUNAREN TAULA					
ADINA	qx	ADINA	qx	ADINA	qx
0	0,0022767	36	0,0006813	72	0,0239621
1	0,0003371	37	0,0007408	73	0,0264654
2	0,0002138	38	0,0008085	74	0,0292225
3	0,0001642	39	0,0008851	75	0,0322575
4	0,0001375	40	0,0009714	76	0,0355962
5	0,0001213	41	0,0010682	77	0,0392666
6	0,0001108	42	0,0011764	78	0,0432985
7	0,0001041	43	0,0012970	79	0,0477240
8	0,0000999	44	0,0014313	80	0,0525770
9	0,0000979	45	0,0015806	81	0,0578936
10	0,0000980	46	0,0017464	82	0,0637117
11	0,0001010	47	0,0019304	83	0,0700712
12	0,0001079	48	0,0021343	84	0,0770134
13	0,0001200	49	0,0023604	85	0,0845808
14	0,0001380	50	0,0026108	86	0,0928171
15	0,0001619	51	0,0028882	87	0,1017664
16	0,0001908	52	0,0031953	88	0,1114726
17	0,0002229	53	0,0035353	89	0,1219789
18	0,0002561	54	0,0039116	90	0,1333269
19	0,0002882	55	0,0043281	91	0,1455557
20	0,0003174	56	0,0047890	92	0,1587008
21	0,0003427	57	0,0052990	93	0,1727930
22	0,0003637	58	0,0058631	94	0,1878573
23	0,0003805	59	0,0064871	95	0,2039111
24	0,0003939	60	0,0071773	96	0,2209637
25	0,0004049	61	0,0079404	97	0,2390142
26	0,0004148	62	0,0087841	98	0,2580509
27	0,0004248	63	0,0097167	99	0,2780498
28	0,0004362	64	0,0107475	100	0,2989742
29	0,0004500	65	0,0118864	101	0,3207736
30	0,0004672	66	0,0131446	102	0,3433839
31	0,0004886	67	0,0145341	103	0,3667276
32	0,0005150	68	0,0160682	104	0,3907139
33	0,0005469	69	0,0177615	105	0,4152403
34	0,0005849	70	0,0196298		
35	0,0006295	71	0,0216904		